

AGINDUEN EGIKARITZE ONAREN POLITIKA

Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko Legearen (aurrerantzean, "BMIZL") 218. artikulua, bezeroen aginduak gauzatzean emaitzarik onena lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartu eta aginduak egikaritzeko politika bat izateko betebeharra ezartzen die inbertsio enpresei. Aldi berean, Politika honek, bezeroen aginduak betetzeko edo beste bitartekariari helarazteko baldintzak ezarriko ditu.

Kutxabankek, bezeroen aginduak betetzean, bezeroaren ezaugarriak aintzat hartzeaz gain, -bezero minorista edo profesionaleko kategoria barne- aginduaren ezaugarriak, agindu horren xede diren finantza-tresnen ezaugarriak eta bezeroak erabili ditzakeen exekuzio-zentro edo bitartekarien ezaugarriak kontuan hartzen ditu.

Politika honetan ezarritako betebeharrak BMIZL-an zehaztuta dauden finantza-tresnei aplikatuko zaizkie, baita Kutxabankek une bakoitzean zerbitzua ematen dien finantza-tresnei ere.

Kutxabankek gaur egun, ondorengo inbertsio zerbitzuak ematen ditu Politika honetan oinarrituz eta betetzen duen jardueraren arabera:

- Bezeroen aginduen hartzaile eta transmisorea, aginduak betetzen dituzten bitartekarien hautapen egokia egiteko betebeharra izanik. Errenta aldakorretarako, ETFetarako, Warrants, errenta finkoko tresna batzuetarako eta Kutxabank partaide zuzena ez den antolatutako merkatuetako deribatu batzuetarako -beraz, bezeroen aginduak gauzatzeko hirugarren bati helarazten dizkionak- burutzen da.
- Bezeroen konturako agindu exekutatzailerik, bai betetze zentroetan zuzenean, baita bere kartera propioaren aurka aginduak betetzen dituzten ere, merkatu arriskua onartu eta bezeroaren kontrapartida bezala jarduten duenean. Errenta finkoko tresna batzuetarako eta Kutxabank partaide zuzena den antolatutako merkatuetako deribatu batzuetarako burutzen da.

Eranskinetako taulan, Kutxabankek aginduak betetzeko erabilitako Negoziazio Zentroen zerrenda ez-zehatza azaltzen da. Hala ere, Negoziazio Zentroen aukeraketa politiketan adierazitako irizpideak betetzeko, eranskinetako zerrendan agertzen ez den bat aukera daiteke.

Kutxabanken Aginduen Egikaritze Onaren Politikabezero minorista eta profesional guztientzat izango da aplikagarria. Hala ere, ez da aplikagarria izango kontrako alderdi hautagarriak diren bezeroentzat. Bezero minoristen kasuan, "kontraprestazio osoaren" irizpideak izango du nagusitasuna. BMIZL-ren 222.2 artikulua arabera, emaitza onena zehazteko, batez ere, finantza-tresnen prezioak eta betetzearekin lotutako kostuek osatutako kontraprestazio osoa aintzat hartu behar da, bezeroak izandako eta agindua exekutatzarekin zuzenean lotutako gastuak barne hartuz. Honek, exekuzio-zentroaren tasak, konpentsazio eta likidazio tasak eta agindua exekutatzean inplikaturako hirugarrenei ordaindutako tasak aintzat hartuko ditu. Bezero profesionalei dagokienez, minoristen kasuan aurreikusten diren baino faktore gehiago erabiliko dira, hala nola, exekuzio-abiadura edo probabilitatea, egiten duten kontratazio bolumen handiak direla eta. Ordea, exekuzio hobea egiaztatzeke ondorioetarako transakzioan ez dira Kutxabankekin kontratatutako komisioak sartuko, kontzeptua edozein dela ere.

Bezeroak agindu bat non eta nola betetzeko instrukzio zehatz bat ematen duenean, aurretik azaldutako lehenetsun bat aldatuz, jarraibide horiek Politikan jasotako irizpideen gainera egongo dira, ahal den neurrian behintzat, hau da, Kutxabankek bezeroaren jarraibide zehatza aurrera eramateko exekuzio-bideak eta kanalak bere esku baldin baditu. Jarraibiderik ez dagoenean, Politikatik eratorri daitezkeen aginduak jarraituko dira.

Kasu hauetan, bezeroari ohartaraziko zaio edozein jarraibide zehatzak galaraz dezakeela, jarraibide horrek eragina duen elementuei dagokienez, Kutxabankek Politikaren testuinguruan aurreikusitako neurriak



kutxabank

hartzea, agindu horiek betetzean ahalik eta emaitzarik onena lortzeari begira. Edozelan ere, Kutxabank ahalik eta emaitzarik onena lortzen saiatuko da jarraibide horiei jarraiki.

Politikaren onarpena tazitua izan daiteke, bezeroak eragiketa abiaraztean Politika onartzen duela ulertuko delako.

Kutxabankek, aldizka, Politikaren eraginkortasuna eta aurreikusitako entitateen exekuzio-kalitatea egiaztatutako du. Era berean, Politika urtero berrikusiko du, baita horren gainean eragina izan dezakeen aldaketa material bat ematen den bakoitzean ere.

Kutxabank, aginduen exekututzailea den kasuetan, bezeroei frogatuko die, horiek hala eskatzen dutenean, aginduak ezarritako Aginduen Egikaritze Onaren Politikaren arabera gauzatu direla. Hau frogatu ahal izateko, Politikan ezarritako exekuzio-prozedurekin lotutako printzipio eta alderdiak jarraitu direla egiaztatuko da.

ERANSKINA - BETETZE ZENTROAK / BITARTEKARIAK

Deribatuak:

Negoiazio Zentroak	Herraldea	Mota	Sarrera modua
EUREX Deutschland & Eurex Zurich AG, "Eurex Exchanges"	DEU	Erregulatutako Merkatuak	Sarrera zuzena
MEFF – Aukeren eta Etorkizuneko Finantze Espainiako Merkatu Ofiziala	ESP	Erregulatutako Merkatuak	Sarrera zuzena
ICE – Intercontinental Exchange	AEB	EB ez den merkatua	Zeharkako sarrera
CME – Chicago Mercantile Exchange	AEB	EB ez den merkatua	Zeharkako sarrera
CBOT – Chicago Board of Trade	AEB	EB ez den merkatua	Zeharkako sarrera
Nasdaq OMX	AEB	EB ez den merkatua	Zeharkako sarrera
LIFFE – London International Futures Exchange	GBR	Araututako Merkatuak	Zeharkako sarrera
LME – London Metal Exchange	GBR	Araututako Merkatuak	Zeharkako sarrera
SIMEX – Singapore Exchange	JPN	EB ez den merkatua	Zeharkako sarrera
OSAKA – Osaka Stock Exchange	JPN	EB ez den merkatua	Zeharkako sarrera

Bitartekariak: Santander, Altura Markets S.V, Morgan Stanley.

Errenta finkoa:

Negoiazio Zentroak	Herraldea	Mota	Sarrera modua
Bloomberg	GBR	MTF	Sarrera zuzena
Tradeweb	GBR	MTF	Sarrera zuzena
SEND*	ESP	Araututako Merkatuak	Zeharkako sarrera
MARF*	ESP	Araututako Merkatuak	Zeharkako sarrera

*Bitartekaria: Kutxabank Investment (Kutxabank Taldekoa).

Errenta aldagarria, ETF eta Warrants:



kutxabank

Negoiazio Zentroak	Herrialdea	Mota	Sarrera modua
BME	ESP	Erregulatutako Merkatuak	Zeharkako sarrera

Bitartekaria: Kutxabank Investment (Kutxabank Taldekoa).